

## **SUP PILATES**

DZINGUA eta EKIN AISI enpresak elkartu gara udako ekintza berritzaile hau eskaintzeko.

Ikastaro hauek Ziortza Fernandezek, Ekin Aisiko buruak, emango ditu. Pilateseko irakasle da eta oinarrizko formakuntza du Stand Up Paddlean.

Eskaintza hau uztaila eta abuztuan egiteko aukera egongo da. SUP Pilateseko kurtsoa bost egunekoa izango da, astelehenetik ostiralera bitartekoa. Egunean zehar bost txanda desberdin egongo dira:

8.30-9.40//15.00-16.10//19.00-20.10//20.10-21.20

### **ARGIBIDEAK:**

- Ezinbestekoa igeri egiten jakitea, ez da beharrezko Surfari edo Pilatesari buruz ezer jakitea.
- Likra, bainujantzia eta aldatzeko arropa ekartzea hautazkoa da.
- Saioak ordubete eta 10 minutu iraungo ditu gutxi gora behera.
- Saioak eguraldia eta marearen arabera emango dira, bertan behera utzi ez gero beste egun batera pasako da saioa.
- Bost eta zortzi bitarteko taldeak izango dira. Irakasle tituludun batek emango ditu klaseak.
- Prezioaren barne materiala, irakaslea eta segurua daude.
- Taldea maximora heltzean itxiko da.
- Taldeko deskontua (%10) aplikatzeko, minimo 6 partaide.
- Aste bat edo gehiago luzatu nahi duenak kurtsoa, %15eko deskontua egingo zaio aste bakoitzean.
- Izen-ematea ondorengo modu desberdinetara egin daiteke: Dzingua dendan, 944 65 37 07 telefonoan, edota uztaila eta abuztuan, Karraspioko txiringitoan edo 688 82 67 97 telefonora deitzen. Nahi duenak ere [dzinguakirolekintzak@gmail.com](mailto:dzinguakirolekintzak@gmail.com) emailera idatziz.

### **PREZIOAK:**

- Astekoa: 60€. Mendexakoak edo Ekinaisiko bezeroak (seiloa foiletoan): 55€.  
Astelehenetik Ostiralera, egunero.
- Hilabetekoa: 55€. Mendexakoak edo Ekinaisi bezeroak (seiloa foiletoan): 50€.  
Talde1: Astelehen eta Asteazkenetan. Talde2: Astearte eta Ostegunetan.  
Ordutegi finkoa: 19.00etan.
- Partikularra: 30€. Mendexakoak edo Ekinaisi bezeroak (seiloa foiletoan): 25€.

### **OHARRAK:**

Itsasoan garatzen diren kirol arloak berez arrisku puntu bat daukate. Gainera inguru aldakor batean (marea, eguraldi aldaketak...) egiten dira. Beraz, ezinbestekoa da gure monitoreek emandako argibideak kontuan izatea, jarduera burutu aurretik eta bitartean.

1.- Aurrez kontratatutako ekintzaren bat bertan behera utziz gero, bezeroak eskubidea dauka ordaindutako dirua berreskuratzeko edo ekintza beste egun batean egiteko, bezeroak nahi duen modura.

2.- Bezeroak zerbitzua kontratatu nahi izanez gero, ezgaitasunen (psikikoa, fisikoa...)bat badauka, jakinarazi egin behar digu.

3.- Bezeroak zerbitzu hau kontratatzerakoan, argi uzten du gaitasun osoak dituela kontratatutako ekintza burutzeko.

4.-Enpresa edo monitoreak partaideak suspenditu ditzake, alkohola, droga edo beste sustantzia baten menpean badago. Ordaindutakoa ez zaio itzuliko.

**Kontratazio-baldintzak**

5.- Ekintzaren bat erreserbatzeko, zenbateko guztia ordaindu beharko du ekintza egin aurretik.

6.- Bezeroak kontraturiko edo eskaturiko zerbitzuak bertan behera utz ditzake. Aurreratutako dirua itzuli egingo zaio jardueraren eguna baino 10 egun lehenago abisatuz gero, data horretatik aurrera Dzingua Kirol Ekintzak S.L. indemnizatu beharko du ondorengo zenbatekotan:

- %10a ekintza burutu baino 4 egun lehenago egiten bada, eta % 20a jarduera baino arinagoko bi egun lehenago.

- Esandako egunean eta orduan agertzen ez bada, erreserbaren zenbatekoa osorik ordaindu beharko du.

7.- Ekintza kontratatutakoan, bezeroak onartu egiten ditu aurretik azaldutako baldintza guztiak.